



Eleanitz proiektua 1991 urtean abiatu zen euskal hiztun eleanitzak hezteko helburuarekin. Helburu hori bete ahal izateko, euskara, gaztelania, ingelesa eta frantsesaren irakaskuntza eta ikaskuntza prozesuak marko metodologiko eta curriculum komun baten baitan bildu ziren.

Eleanitz-English eta **Eleanitz-Français** proiektu zabal horren adarrak dira, eta honako ezaugarriak dituzte:

- Ingelesaren ezartze goiztiarra: 4 urtetik aurrera.
- Frantsesaren ezartzea Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. mailatik aurrera.
- Ekintzan oinarritutako ikuspegian sortutako ikasmaterialak eta proposamen didaktikoak: hizkuntzaren ikaskuntza ekintza esanguratsuak gauzatuz eta ekintza horiek besteekin partekatuz gauzatzen da (adb. ipuin dramatizatuak, ataza eta proiektuak, CLIL/EMILE).
- 4-16 adin tartetarako ikasmaterial progresibo eta koherenteak.
- Irakasleen prestakuntzan eta garapen profesionalean ardaztua.
- Irakaskuntza metodoen, ikasmaterialen eta irakasleen prestakuntzaren jarraipena eta hobekuntza barne- eta kanpo-ebaluazioen bidez.

Eleanitz proiektuak ondoko ikasmaterialak eskaintzen ditu ingelesaren eta frantsesaren irakaskuntza-ikaskuntzarako:

- **Eleanitz English:**
 - Ready for a Story (4 – 6 urte bitarteko ikasleentzat). Egilea: Josep Maria Artigal
 - The Adventures of Hocus and Lotus (6 – 8 urte bitarteko ikasleentzat).
 - Story Projects (8 – 10 urte bitarteko ikasleentzat).
 - The Explorers (10 – 12 urte bitarteko ikasleentzat).
 - EKI-Subject Projects (12 – 14 urte bitarteko ikasleentzat).
 - SSLIC – Social Sciences and Language Integrated Curriculum (14 – 16 urte bitarteko ikasleentzako Social Sciences eta English arloetarako ikasmaterialak)
 - Science for the contemporary world (16-17 urte bitarteko ikasleentzako 'SCW' arlorako Moodle bidezko ikasmaterialak).

- **Eleanitz Français:**

- En Français aussi! (12-16 urte bitarteko ikasleentzat).

Eskaintza osoa ikusteko www.eleanitz.org orrira joan.